



HERRIKO KONTSEILUAREN ERABAKIA ORTZAIZE HERRIA

2025eko martxoaren 11ko saioa

Bi mila eta hogeita bost urteko martxoaren hamaikan arratseko zazpiak eta erdietan biltzera deiturik, herri honetako Herriko Kontseilua frantses legeak behartu kopuruan bildu da, bilkuren ohiko lekuan Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza saioko lehendakari izanik.

Presente ziren: CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, HEGUY Antton, IDIART Claudine, IRIART Jean Claude, IÑARRA François, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Ezin etorriak: AYÇAGUER Elorri

Saioko idazkaria: IDIART Claudine

Deialdiaren data: 2025eko martxoaren 7a

Afixatze data: 2025eko martxoaren 7a

9. ERABAKIA: FRANTZIAKO KIROL AGENTZIARI DIRU LAGUNTZA ESKATZEA **ARROSATEGIA PARKEAN FRONTOI BATEN FINANTZATZEKO**

(7.10 *nomēnklatura*)

Auzapezak herri biltzarkideei oroitarazi die Arrosategia etxearen xedea aldatzeko eta eskolekin loturan liratekeen eremu publikoak eta pilota leku baten sortzeko proiektua.

Zehaztu du frontoiaren eraikitze proiektuaren finantzamendua eta Arrosategia etxearen eraberritze proiektuarentzako eta eskolekin loturan diren eremu publikoen sortzeko finantzamenduak desberdinak izanen direla.

Biltzarrari proposatu dio Frantziako Kirol Agentziari diru laguntza eskatzea.

Auzapezak adierazi du frontoia eraikitze proiektuarentzako aurreikusten den zenbatekoa 265 000 eurokoa dela, zergaz kanpo.

Honako finantzazio aurreikuspen plana proposatu du:

GASTUEN IZAERA	ZENBATEKOA ZK	SARTZEAK	ZENBATEKOA	%
Frontoia eraikitze lanak	265 000.00 €	Frantziako Kirol Agentzia	132 500.00 €	%50
		Funts propioak	132 500.00 €	%50
OROTARA	265 000.00 €	OROTARA	265 000.00 €	%100

Herri Biltzarrak, Auzapezaren azalpenak entzun eta eztabaidaturik,

- ONARTU DU, Arrosategia parkean frontoi baten eraikitze proiektua
- ONARTU DU, 265 000.00 eurotan (zergaz kanpo) aurreikusten den zenbatekoa,

- ONARTU DU, aurkeztu den finantzamendu plana,
- Frantziako Kirol Agentziari eta bestelako erakundeei diru laguntzak ESKATUKO dizkie.
- AURREIKUSIKO DITU, Herriaren aurrekontuetan, lan horien osoki egiteko beharrezkoak diren kredituak,
- BAIMENA EMAN DIO, Auzapezari ekintza horren burura eramateko beharrezkoak diren neurrien hartzeko eta agiri oro izenpetzeko.

Jardunean diren kideak: 15

Presente direnak: 14

Adierazi diren bozkak: 14

ALDE: 14

KONTRA: 0

ABSTENTZIOA: 0

Gorago zehaztu urte, hilabete eta egunean deliberaturik. Presente ziren kideek erregistroa izenpeturik. Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZE, 2025eko martxoaren 21a

Auzapeza:

Jean-Marc OÇAFRAIN

Honako akta indarrean izanen da,
2025eko martxoaren 24an argitaratu edo jakinarazi ondotik
eta egun berean suprefekturara igorri ondotik.